



'HONTZAK' ETA 'OTSOAK' FINALERA

Beterriko II. Txapelketako finala hilaren 27an izango da Urnietan; Herenegun bigarren saioan arabarrek irabazi zuten 6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2009-03-22**

VII. URTEA 1.660. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Polenaren eragina handitzen dute motorrek sortzen dituzten partikula batzuk; irudian, erlea kukuprakan. NEREA URBIZU

UDABERRIAREN ESKUTIK HELDUKO DIRA ALERGIAK

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Gero eta alergia kasu gehiago daude umeengan zein helduengan; kutsadurak eragin zuzena du 4-5



Kapoeira erakustaldira jende ugari hurbildu zen. E. EZBIZA

Hesian eta kapoeira berrikuntzekin agur esan diete herriko Gazte Festei

BERASTEGI Bi ekitaldi nagusiek jende ugari bildu zuten; egunero giro bikaina izan dute 6

Zazpi-Itturri VI. Berria txapeketatik at

AMEZKETA Irurtzunen aurka galdu zuen atzo; finala hilaren 28an jokatuko du Aurrera-Saiazek 7

Agirre laugarren Emakumea Pilotari Txapelketan

LEITZA Hirugarren postua zuen jokoan leitzararak atzo Anoetako pilotalekuan, baina 30-18 galdu zuen Aristorena bikotearekin batera 7

**Bertsos
Jazz**

**Martxoak
28**

22:00etan

**Tolosako
Leidorren**



» Uzturretik

Felix Irazustabarrena

Harritzeko moduko «bertso» zurrunbilan sartuta dago eskualdea. HITZako web orrian bertso bilaketa egin eta martxoan lehen hamabostaldian 32 testu, albiste, azaldu zaizkit. Txapelketak, saio bereziak, afariak, bertso eskolak..

Herrietako antolatzaileek, Bertsozale Elkarteak eta eskualdeko hedabideek osatutako triangulu baten erdian kokatu dira, egutegian lekua egin ezinik ibili diren ia ekitaldi guztiak.

Txolarre irratia kabitik plazara ekimena bultzatu du; Zizurkil, Alegia edo Tolosan bertso otorduk. Aiurri aldizkariaren laguntzarekin II. Beterriko Bertsolari Txapelketa martxan dago, eta bertsolari hitza izenekoaren barruan eskualdeko bertso eskolen arteko desafioko sustatu ditu HITZAK. Bertso paper lehiaketa ere hasi berria du Iurre Elkarteak Tolosako ikastetxeetan.

Eskaparatean dago beraz bertsoa. Baina nekez erakusten da icebergaren tontorra, beheran ez badago ezer, eta eskualde bertsozalea dugula beti esan bada ere, oinarria landu egin beharra dago.

Galtzaundik ematen duen Eskerrak zuri saria, Bertsozale Elkarteak eskualdeko eragileentzatizan zeniaz kultur alorrean «bertsolari-

tza hezkuntza arautuan txertatzeagatik, eskualdean perritxikoak bezala zabaldu diren bertso eskolatan jarduteagatik, eta aspaldiko urteetan geldirik egon den Tolosako bertso eskola martxan jartzeagatik».

Gipuzkoa osoan bezala, eskualdeko herri handienetan sartuta dago ahozkotatua eta bertsolari-tza proiektua, eta herri txikietan nola txertatu aztertzen ari da Bertsozale Elkarteak. Zortziehun ikasle inguru eta iristen gara ikasturte honetan.

Perretxikok bezala sortzen diren eskolak ugalduta, 24 talde haur eta helduenak kontaktatu. Ikaztegieta, Amezketan, Berastegin, Lizartzan, Alegian, Zizurkilan, Asteasun, Villabonan, Ibarren edo Leitzaun badaude eta Tolosa-

koak ere hasi dira lanean. Tolosaldekoa zen bere sorreran, duela ia hogeita hamar urte sortu zen bertso eskola. Bertsoak egiten ikasi zitekeela deskubritu genuenean sortu zen ekosistemaren lanketa handirik gabe. Egun ordea, jorratu egin behar da sistema ekologiko hori. Batetik, perretxikoetan bezala, babes sarea dago eduki beharra, eratu beharra, eta bestetik ekosistema osatzen duten elementu desberdinak landu, hezkuntzan adibidez. Ahozkotatua ez baita bertsolari-tza bakarrik, baina ahozkotatuen elementu desberdinak indarrean dauden ekosisteman egingo du aurrera bertsolari-tza ere. Duela hogeita hamar urte beharbada berez osatuta zegoen ingurune hori eta orain ez horrenbeste.

Tolosan beste saiakerak egin arren, inguruko herrietan bertso eskola txikiak hedatu eta gero, eta batez ere, ikasleengan iritsitakoan lortu da taldeak osatzea. Haurrenak gainera, ez Tolosa mailan, ikastetxe inguruetan baizik. Bost ikastetxe eta 80 ume.

Zikloak izaten dira, baina azken boladak hau zikloia dirudi. Agendari begira jartzea baino ez dago. Datorren ostiralean Alegian desafioretako azken saioa dago, Altxo eta Alegia buruz buru, eta egun horretan beste bi bertso afari, Hiruki-de ikastetxeak antolatutakoa Tolosan eta Amasan bertsolari gazteak trebatzen joateko osatutakoa. Hurrengo egunean Beterriko finalaz gain Bertso Jazza Leidor aretoan. Eta handik aste betera, larunbatez Tolosan bazkariaren bueltan bertsolari hitzako finala eta ondoren kabitik plazara, Iurreko elkarte bertso afaria. On egin digula!

z Zurea da hitza

info



Oiasso museora bisita egin dugu ikastolakoek

VILLABONA • Iragan asteazkenean, martxoak 11, Jesusen Bihotza ikastolako Villabona-Zizurkilgo LH1 mailako ikasleak Irungo Oiasso museora joan ginen. Izan ere, Txanela Proiektua dela eta Erroma eta erromatarren inguruko gauza mordoak ikasten ari gara. Bertan gauza asko ikusi eta ikasi genituen: denarioak, erabiltzen zituzten apaingarriak... Hau guztiaz gain, museoaren inguruan egiten ari diren industrietatik ikusteko aukera paregabea izan genuen. Izan ere, erromatar garaian Irungo herriak Oiasso izena zuen eta portu garrantzitsu bat zuen. Badirudi, orain aurkitu berri dituzten industrietan garai hartako portuaren aztarnak aurkitu dituztela. Egia esan asko ikusi eta ikasi genuen, eta primeran igaro genuen.. JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

H Hilberriak

M^a CRUZ IRULEGI AGIRRETXE

(Ladis Zalakainen alarguna)

Martxoaren 20an hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-



Bere seme-alabak: Jose Luis (1), Izaskun eta Txus Berasategi, Alfonso eta Ana Erbiti bilobak; Naiara eta Gorka, Irigo eta Irati, Egoitz eta Iazki; anai-arrebak: Ignazio eta M^a Carmen; ezkon anai-arrebak: Ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaidiak. Haren animaren alde otortz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela BIHAR ASTELEHENAN 23an, arratsaldeko ZAZPIETAN Tolosako SANTA MARIA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

HELBIDEA: Gorosabel, 19 eta San Cosme eta San Damian Oharra; Gorpuz hila Tolosako Funeraria Vascongado Tanatorioan egingo da, ASTELEHENAN 23aren, goizeko 09:15ak arte.

TOLOSAN
2009ko
martxoaren 22an

JOSE ANTONIO AZURMENDI OLARAN

Herenegun hil zen, 87 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-G.B.-



Emazteak: Maria Albizu; seme-alabek: Joxe Migel eta Axun Senar, Jose M^a eta Garbiñe Lasa, Garbiñe eta Iñaki Elizondo, Belen eta Josean Fuentes, Jon eta Iratxe Hormaetxe; bilobek: Ane, Amaia, Oier, Hodei, Beñat, Itsaso eta Lide; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak: Ilobak, lehengusuek, Monica Flores eta gainerako ahaidiak. Haren animaren alde otortz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela BIHAR ASTELEHENAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI ZERURATUAREN parroki elizan egingo den hila elizkizumera. Aldez aurretik, mila esker.

HELBIDEA: Oriamendi, 40-4. Beasain
OHARRA: Gorpua GOIERRI BEILATOKIAN egingo da, IGANDEA, goizeko 11:45ak arte

BEASAIN
2009ko martxoaren 22a

H Hilberria

SEBASTIAN LASA ESNAOLA

(Maria Otaegiren alarguna)

(Matxinbentako Zuaneta baserrikoa)

Atzo hil zen, 94 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-



Attite
Begiak malkoz beterik daude
Zu betirako galtzean
Baina leku bat gorderik duzu
Guz guztioz bihotzean

Haren animaren alde otortz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela gaur igandea, arratsaldeko 19:30ean, Azkoitiko Ama Birjinaren Jasokundeoko parrokiari, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Zure bilobak eta birlobak

HELBIDEA: Kale Nagusia - 69 - 2 ezk

AZKOITIA
2009ko
martxoaren 22a

E Eskertza

GUADALUPE ARISTONDO IBARRA

Andere hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi. Gaur, igandea, haren aldeko meza izango da 11:30ean Lasako elizan.

AZPIETIA
2009ko martxoaren 22a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Gutunak

ERE kaleratze eta soldata murrizketen aurka borrokatu elkartu! (II)

(...) Sektore guztien borroka elkartu behar da! Greba orokorra!

Krisi anker honek garbi uzten du gobernuak eta Estatuak, kapitalismoan, ez direla neutralak. Beste gobernu guztien moduan, Ibarretxeren gobernuak ere enpresariari aldeko neurriak hartzen ari da. Banku handiei emandako diru laguntzak babestuz, Eusko Jaurlaritzari bost axola zaio diru hau langileen poltsikoetatik ateratzea. Ikaragarriko dirutzak bankuei ematen zaizkien

bitartean uko egiten diote lanpostuak eta langabezia sorospena mantentzeko diru publikoa erabiltzeari. Argi utzi digute beste behin ezin dugulagobernu eta patronalengan konfiantzarik izan. Ez dute ezer egingo langileen alde. Ez zaigu geratzen borroka egitea beste erremediorik.

Mundu osoan gertatzen ari den moduan Euskal Herrian ere langileen mobilizazioak handituz joan dira azken hilabeteetan ERE, kaleratze eta soldata murrizketen aurka. Langileek egindako greba eta manifestazioetan garbi ikusi da langileek eta hauen familiek daukaten borrokarako konpromisoa euren lanpostuak eta sol-

datak defenditze arren. Beharrezkoa da gatazkan dauden fabriketako langileen borroka elkartzea. Arazoa berdina bada, mugimenduaren indarra biderkatu egiten da mobilizazio bateratu eta koordinatuekin. Oso zaila da lanpostuak enpresaz enpresa defendatzea. Oso zaila da EREak fabrikaz fabrika atzera botatzea. Are gehiago, patronala harropuzten duten soldata murrizketak onartzen edo negoziatzen badira.

Sindikatuak ardura oso garrantzitsua daukate. Azken urteetan, langile mugimenduaren konkista historikoak eta eros ahalmena galduta diru akordio sozialen ondo-

rioz. Langile klaseak sindikatu borrokalariak behar ditu. Funtssezkoa da sindikatuak langabeziaren aurkako eta enpleguaren aldeko programak langileguztietara zabaltzea:

- Arbuaiatu egin behar dira EREak, modu garbi eta erabatekoan. Krisian dauden enpresen nazionalizazioa exijitu behar da, hauek langileen eta hauen erakundeen kontrolpean jarri. Diru publikoa ez dadila erabili bankariei oparitzeko, diru laguntza enpresarietarako eta beherapen fiskal etarako, baizik eta lanpostuak mantentzeko eta herritarren gehiengoaren beharrik asetzeko.

- Bankuen eta monopolioen nazionalizazioa planteatu behar da, orain gutxiengo baten eskuetan dauden errekurtsio ekonomiko hauek inbertsio publikorako erabiltzeko. Honi esker posible izango litzateke azpiegitura sozial, etxebizitza, hezkuntza eta osasun publikoan inbertsio programa handiak aurrera eramatea.

- Pribatizatuak izan diren enpresa publikoen bernazionalizazioa eta martxan dauden pribatizazio planen geratzea eskatu behar da. Hezkuntza eta osasun publikoak defendatzea oinarrikoa da zerbitzuen kalitatea eta sektore hauetako lanpostuak bermatzeko.

- Langabezi sorospen mugagabea defendatu eta exijitu behar da. Lan astea 35 ordukoa izatea defendatu behar da enplegua bantatzeko, soldata murrizketarik gabe. Erretiro adina 60 urtera aurreratzea defendatu behar da %100eko soldatarekin eta errelebo kontratuekin. Hau da kapitalismoaren krisiari aurre egiteko eta langileen interesak defendatzeko alternatiba.

Baina hau, mobilizazio zabal, indartsu eta bateratuekin bakarrik lortu daiteke. Horregatik, sindikatuak, 24 orduko greba orokorra antolatu behar dute errebindikazio hauek defendatzeko. Greba orokor batek langileen eta herritarren babesa izango luke. Greba orokorra ez litzateke izan behar helburu soil bat, patronala eta gobernuaren neurrien aurkako baliabide indartsu bat baizik.

Langile, defendatu itzazu errebindikazio hauek: Krisia kapitalistek ordaindu dezatela!! ERErik ez!! Diru publikoa lanpostuak mantentzeko eta langabetuen tzentzat, ez bankari eta enpresariarentzat!! Krisian dauden enpresen nazionalizazioa langileen kontrolpean!

Ibon Artola
(Euskal Herria Sozialista' aldizkariako kidea).

Komikiak

Martin Mantxo



Laburrak

Herriko festa antolatzeko bilera izango da etzi

ANOETA • Ekainaren 11n izango den Korputz Egunaren harira herriko festa prestatzen hasteko bilera deitu dute Anoetan, martxoaren 24an, asteartean, 18:30ean udaletxean bertan. Kultur elkarte eta herritar orori deialdi berezia luzatu nahi izan diete bileran parte hartzeko.

Bakardadeari buruzko hitzaldia Alkartasunan

ANOETA • Kutxaren Nazaret Zentroak antolatuta, Alkartasuna Biltokian Nagore Vazquezek hitzaldia emango du bakardadeari buruz, *Bakardadeari aurre egiteko alternatibak: animaliak, ikasle gazteak eta lagunak egitea* izenburupean. Etzi izango da hitzaldia 18:30ean.

Alkartasuna biltokiko kuota ordaintzeko aukera

ANOETA • Alkartasuna biltokiaren zuzendaritzatik azaldu dute hil honetan bertan bukatzen dela 2009ko urteko kuota ordaintzeko epea. Beraz, deialdia egin dute oraindik egin ez dutenentzat. Ordainketa 8 eurokoa da eta Alkartasuna biltokian bertan egin daiteke, 18:00etatik 20:00etara.

Gizonezko bat atxilotu dute lapurreta egotzita

ERREDAKZIOA

43 urteko gizonezko bat atxilotu zuten herenegun Ertzaintzak Tolosan, ustez RENFEko aldiriko tren bateko bidaiariak labana batekin mehatxatu zituelakoan. Leku-koek jakitera eman zuten, «diru lapurtu» nahi zien eta horretarako «labana erabili zuen bagoia zeudenekin».

Eusko Jaurlaritzako Barne sailak zehaztu duenez, aipaturiko gertaera herenegun, larunbatean, gauean, 21:00etan jazozen, Gipuzkoako ibilbidea egiten ari zen tren batean. Hain zuzen ere, Anoeta eta

Tolosako arteko tarte horretan mehatxatu zituen, ustez, bidaiariak.

Atxiloturiko gizonezkoa trenean zegoen emakume batengana joan zen lehenik eta behin, lekukoek Ertzaintzari azaldu bezala. Labana eskuan zuela lapurtzen saiatu zen eta ondoren mutil batengana joan zen. Baina bagoi berdinean zeuden bi laguneren artean gizonezkoa eutsi zuten tren Tolosako geltokira heldu zen arte.

Atxilotua Tolosako goardiako epaitegiaren esku utzi zuten atzokoan.



IURREAMENDI EGOITZAKO ZUZENDARITZA BATZORDEAN HERRI ELKARTE ETA ERAKUNDEEN ORDEZKARIAK HAUTATZEKO PROZESUAREN HASIERA

Iurreamendi Egoitzako Zuzendaritza Batzordeak, 2009ko otsailaren 3an egindako bilera, Zuzendaritza Batzordean Tolosako Udalerriaren egoitza duten herri elkarte eta erakunde ordezkarieraren artean bizilagunak ordezkatzeko Udalak aukeraturako bi pertsona izendatzeko prozesuaren hasiera erabaki zuen.

- Iurreamendi Egoitzako Zuzendaritza Batzordean egoiliarrek eta Tolosako elkarte zein herri erakundeak ordezkatzeko dituzten kideak hautatzeko erregelamendua. Iurreamendi Egoitzako bulegoetan eta tolosakoudala.net web orrian, interesatuen eskura dago.
- 2009ko martxoaren 23an hautagaiak aurkezteko prozesua hasten da.
- Hautagaiak aurkezteko epea 2009ko apirilaren 20an bukatuko da.
- Hautagaiak aurkezteko inprimakiak Tolosako Udaletxeko Sarrera Erregeritroan edo Iurreamendi Egoitzako bulegoetan jaso eta entregatu dira, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00ak arte.

Tolosa, 2009ko martxoaren 22a
Zuzendaria

Hesian taldearen kontzertuarekin esan diete agur Gazte Festei

Berastegi » Mus txapelketako finalak eta kapoera erakustaldia izan ziren atzo arratsaldean, jaietako azken egunean.

ESTI EZEIZA

Atzoko parrandaren ostean, ajearekin esnatuko ziren ziurrenik gaur berastegiaren gazte gehienak. Hiru eguneko jaien ostean normaltasuna eta lasaitasuna izango da nagusi gaurtik aurrera. Hala ere, atzokoa egun garrantzitsua izan zen, ekitaldi nagusiak orduan izan baitziren.

Atzokoa, bazkal ostean hasi ziren ekitaldiak. Lehendabizi mus txapelketako finalak jokatu ziren. Denera 15 bikote hartu zuten parte astebete lehenago hasi zen txapelketan. Lau bikote aritu ziren nor baino nor. Bikote guztiek elkarren aurka jokatu zuten, eta ustel gehiena lortu zituena izan zen irabazlea. Hala, finalera iritsi zen neska bikote bakarra izan zen garaile: Izaskun eta Arantxa Dorronsoro

haizpek osatutakoa. Beraiekin batera lehia aritu ziren: Iñaki Apezetxea eta Jokin Azpiroz; Iban Atxukarro eta Mikel Apezetxea eta Mikel Zubillaga eta Jil Zubillaga.

Honen ostean, aurtengo Gazte Festetako berrikuntzetako bat, kapoira erakustaldia. Jende ugari bildu zen, dantza, musika eta arte martzialak uztartzen dituen kirolaz gozatzera. Plazan, kapoera egiten zuten lagunengandik bildu ziren berastegiarrak eta hauek, txaloak joz animatu zituzten.

Ikuskizunaren ostean, tripa betetzeko ordua iritsi zen. Urepel elkarrekoek sagardoa eta ardoa banatu zuten jende artean. Eta hauek hobeto sartzeko, Kako jatetxean prestatutako zenbait pintxo.

Festei amaiera emateko Hesian taldearen kontzertua izan zen. Egun, gaztekoen artean ospendia lortu duen taldea da hau, eta hori baieztatu ahal izan zen atzoko kontzertuarekin. Gainera, antolatzailerek, inguruko herrietako gazteak erakartzeko, autobus zerbitzu berezia jarri zuten.



Ostegunean jokatu ziren pala txapelketako finalak, banaka nahiz binaka. Irudian sari banaketa. HITZA



Kapoera erakustaldian jende ugari bildu zen hauen inguruan eta txaloak joz animatu zituzten. E. EZEIZA

Beterriko II. Txapelketako finalean 'Hontzak' eta 'Otsoak' izango dira aurkari

Bertsolaritza » Herenegun jokatu zen bigarren saioa; arabarrak bizkaitarren kontra aritu ziren eta lehenak izan ziren garaile.

ERREDAKZIOA

Beterriko II. Bertsolari Txapelketako finalistak zeintzuk izango diren erabakita dago jadanik. Gipuzkoako *Hontzak* eta Arabako *Otso-*

ak izango dira aurrez-aurre hilarren 27an, Urrietako Oianume jate txean jokatu den finalean.

Herenegun jokatu zen Zizurkilgo Olentxo jatetxean txapelketako bigarren kanporaketa. Lehendabizikoan Gipuzkoa eta Nafarroakoak aritu baziren, oraingoan, arabarren eta bizkaitarren txanda izan zen. 40 lagun inguru bildu ziren mahaira, eta bertsoan, Araba ordezkatur: Iñaki Viñaspre, Manex Agurre eta Andere Arriolabengoa

izan ziren. Bizkaibia defendatuz berriz, Gorka Ostolaza, Onintza Enbeita eta Mikel Lazkano. Hasi-rabatean Oihana Bartrak etorri behar zuten, baina osasun arazoengatik ez zen agertu, eta Lazkano aritu zen bere ordeze.

Aurreikuspenen arabera Bizkaiko *Azeriak* uste zen irabazle izango zirela, baina arabako *Otso-*ek saio osoari erreparatu gero, lan erregularragoa eta borobilagoa egin zuten. Bestalde, arabar ugari hurbildu ziren bertso-afarira eta horrek ere eragin izan zuen emai-

tzan, etxeko alde egin baitzuten askok. Hala ere, diferentzia ez zen handia izan, Arabakoek 17 boto jaso zituzten eta Bizkaikoek 11.

Hasieratik motibatuagoak arabarrak egon ziren

Beterriko Bertsolari Txapelketa ezagutzen duen orok badaki, lehendabiziko bertsoek, eta oro har, sarrerak garrantzi handia duela. Izan ere, epai-mahaia entzulegoa izatean, hasieratik lortu behar dute bertsolariek beraien konfiantza eta arreta.

Banakako lana hartuz gero, bizkaitarrek kalitate hobea erakutsi bazuten ere, hasieratik, motibatuago agertu ziren arabarrak. Sarreran, Enbeitak, txantxetan aipatu zuen arabar asko zeudela mahaiaren bueltan. Gainera, aipatzekoa da ere, azken hauek Bartrarekin prestatu zutela txapelketa, eta azken orduan deitu behar izan ziotela Lazkanori.

Saioari dagokionean berriz, Jon Unanue, Larramendi Bazkuna elkarteko kidearen hitzetan, kalitate aldetik aurrekoa baino panggalagoa izan zen. Bere ustetan, tokia handiegi geratzen zen, eta horrek giroa hoztu zuen, «bilduago izateak eragina du saioan bertan ere». Hala ere, gaineratzen zuten, entzulek ongi pasa zutela.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Ukendua.** Fistula edota erredura arazoak, kirurgia gabe. Dena naturala. Interesatek deitu konpromezu gabe 618 62 83 11 telefono zenbakira edo idatzi garitxu70@hotmail.com helbide elektronikora.

■ **Intza.** Herriko plazan, 300 urte-

ko etxea salgai, garajearekin. Bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzekoa dago. Modu onean salgai, ezinduentzako egokitua, Aralarko magalean landetxea jartzeko aukerakoa ere badago. Harremanetarako telefonoak hauek dira: 628 03 07 27, 646 11 14 85 eta 609 21 85 41.

ALOKAIRUA

■ **Baserria.** Alkizan baserria alokairuan. Txukun-txukuna, bi gela, sukalde ederra, egongela eta komuna. Berritua, eta 3 solairu ditu. Biterraza 30 metro2 eta 20 metro2koak. Lursaila etxe aurrean 5.000 metro2. 700 euro. Deitu 619 34 93 85era.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Udaberriaren eragina nabaritu da urtaro honetako lehen azoka egunean

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna nobedadez gainezka iritis zitzaien. Egun hauetako eguraldi epelak, asko lagundu die barazki eta bestelako landareei, isplua izanez Tolosako azokaren postuetan. Nobedade bezala, aurtengo lehenengo zizak ikusi ahal izan genituen atzo Tolosan. 18 eurotan salduak, berehala desagertu ziren aurkeztutako 3 kiloak, eta hauekin ondoak ere saldu ziren, hauek 26 eurotan.

Barazki zerrendan batxuri berriak izan ziren berrikuntza nagusi; datozen asteetan, aurtengo lehenengo illarrak eta bestelako barazkiak espero ditugu.

Berdura plazan zerrenda oso zabala ikusi izan genuen. Apaingarriko landare asko, geranioak, daliak eta klabelinak zirelan nagusi, eta hauekin, baratzarako landareen zerrenda. Hauxe, puri purian dago egun hauetan, eta askok dira egun hauetan beraien erosketak egiten ari direnak ere bai. Udaberria iritsi zaigula esan beharra dago atzo ikusitakoaren arabera.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merka	Gares.
Landareak		
Azalea	8,50	-
Xarbota	4,00	6,00
Kalendula	2,50	-
Ziklamena	5,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Surfinia	2,40	-
Salbia	1,00	1,20
Krisantemoa	12,00	20,00
Klabeledina	2,80	4,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Barazkiak (kiloa)		
Baba	3,00	4,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	2,00	4,00
Baina	4,00	6,00
Porrua	1,00	3,00
Kalabaza	1,50	3,00

Barazkiak (unitatea)

Kalabazina	0,72	-
Txikoria	0,90	-
Azalorea	1,00	1,25

Besteak

Ogi biologikoa (900gr)	3,20	-
Arraultzak	1,10	2,40
Irasagarra	3,00	6,00

Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Behigazta	8,00	9,00

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Baratxuria	1,60	6,00
Aza	2,50	3,00
Letxua	1,00	-
Ahuntz gazta	3,00	-

Zazpi-Itturrik ez du lortu BERRIA Txapelketako finalera ailegatzea

Pilota » Amezketako pilota eskolak Irurtzunen aurka galdu zuen atzo (54-48); finala hilaren 28an jokatu du Aurrera-Saiazek.

ERREDAKZIOA

Aurtengoan ezin izango dute BERRIA Txapelketako finalean gure eskualdeko bi pilota eskolek aritu. Pasa den ostegunean Aurrera-Saiazek erraz lortu zuen finalerako txartela eta atzokoan Amezketako Zazpi-Itturrik zuen aukera. Baina ez zuen aprobetxatu eta galdu egin zuten Irurtzunen (Nafarroa) aurkako lehia. VI. BERRIA

Pilota Txapelketako beste finalista Irurtzun izango da, beraz. Finala Hernanin (Gipuzkoa) jokatu dute bi eskolek hilaren 28an, larunbarekin.

Partidaren nondik norakoak

Esan bezala, Zazpi Itturrik finalerdian 53-38 galdu zuen Irurtzunen aurka. Jakina denez txapelketa honetan tanto gehien egiten duen eskola irabazten du, hiru partidak batu ondoren.

Gazteetan eta nagusietan Irurtzun nagusitu zen atzokoan 22-12 eta 22-4 markagailuarekin, hurrenez hurren. kadeetan kasuan, berriaz, Zazpi-Itturrikoek irabazi zuten, 9-22ko markagailuarekin.

Aipatzekoa da hala ere, Zazpi Itturrik ez zuela baldintzarik onenetan jokatu. Jubeniletan, Arzelus atzelaria gripearekin eta sukarrarekin zegoen, honenbestez, zituen onenak emateko geratu zen. Bere bikotea, Iraitz Olaetxea ongi aritu zen, eta saiatu zen aurrera egiten baina berak bakarrik ezin izan zuen Irurtzungean aurka.

Nagusietan berriz, hor ere atzelariaren osasun arazoengatik, aldatetarik egin behar izan zituzten. Hala, Leundaren ordez Legarretak jokatu zuen partida. Egoera honekin, jubenilek zituzten irabazteko aukera gehien, eta horrela izan zen.

Aurreikuspenek Zazpi-Itturri

jotzen zuten irabazle, eta pilota eskolako arduradun den Xaltonen hitzetan, «behar bezala egon bagina ziur nago guk irabaziko genuela, atzo ikusi zena baino gehiago baikara». Bestalde, gaineratzen zuen pena zela eskualdeko bi pilota eskola ez izatea finalean. Honi begira, Tolosaldekoak izango direla garaile.

Aurretik biak izanak dira BERRIA Txapelketako garaileak: Zazpi-Itturrikoak 2004an, Irurtzun 2007an. Aurrera-Saiaz, berriz, 2004an txapeladunorde izan zen. Egun, Espainiako txapelketa jokatzeko ari dira Irurtzungeak. Beraz, zaila izango dute eskualdeko ekaripena erdieste.

Pilota » II. Emakumea Pilotari Irekiaren azken jardunaldian 30-18 galdu zuten Anoetako frontoian jokaturako partidari.

ERREDAKZIOA

Gomazko paletaren II. Emakumea Pilotari Irekiaren finala eta hirugarren eta laugarren postuko partida jokatu ziren atzo Anoetako frontoian. Finala Diez-Ocariz nafarrek irabazi zuten 30-14 irabaziz Redondo-Errasti bikote gipuzkoarrari. Hirugarren postua eskuratzeko lehian Iera Agirre leitzarrak eta Aristorenak galdu egin zuten 30-14 Aristorena eta Contin nafarren aurka.

Agirre leitzarrak ez zuen lortu, beraz, hirugarren postua eskuratzetik, batez ere aurkariaren aurrelariak, Aristorenak, egun ona izan zutelako eta gehiago asmatu zuen. Halere, nahiko borrokatua izan zen partida.

Finalari dagokionez, gipuzkoarrek ziren faboritoak, iaz azpitxapeladunak izan baitziren. Diez-Ocarizek sorpresa eman zuten, baina batez ere Redondo-Errastik bere maila ez zutelako eman, oso urduri aritu baitziren partidari.

Parte-hartze handia

Antolatzaileak gustura daude bigarren Irekiaren parte-hartzaile kopuruarekin. Guztira 20 bikote aritu dira lehian, horietatik 13 bikote gipuzkoarrek, 6 nafarrek eta 1 arabarra. Aipagarria da lehenengo lau bikoteetatik hiru nafarrek izan direla.

Anoetako frontoian 70 lagun inguru bildu ziren, tartean Irekian parte hartu duten hainbat pilotari. Izan ere, parte-hartzaile bakoitzak oparia jaso zuen atzokoan. Txapelketari amaiera emateko luntxa egin zuten Anoetako Alkartasuna biltokian.

Agirre leitzarra eta Aristorena bikotea laugarren, Irekian



Hirugarren postua bikote urdinarentzat izan zen; Iera Agirre leitzarrak puntu politik lortu zuten. N. LATABURU



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Ibarra.** Nafarroako Iñurieta upategira joateko irteera antolatu du hilaren 28rako 15 eurotan (hamai-ketakoa, autobsa eta bazkaria). Izena eman nahi duenak herriko Azoka izeneko dendan egin behar du (Euskal Herria kalea, 45 zenbakia).

Kirola

■ **Tolosa.** Amaroako Auzo Elkartek IX. Araxesko Mendi Itzulua antolatu du apirilaren 5erako, 6:00etan abiatuta, 9-11 orduko proba, doan. Izen-ematea, 656 00 89 57 (Jose Mari) telefono zenbakira deituta, auzoetxe@hotmail.es helbidera idatzita edo irteeran.
■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkar-teak 41. Ibilaldia antolatu du hilaren 29rako Andatza, Adarra eta Leitzarain inguruan. Ibilbide luzea (46 km, 10 ordu, 6:30ean abiatuta) eta motza (22 km, 5 ordu, 8:00etan abiatuta). Informazioa: 649 717 182, ibilaldia@aizkardi.com.

Zinema

■ **Tolosa.** *City of Ember, en busca de la luz* haurrentzako filma 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzuz-za, 9. 943 675118.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Atzo arratsaldean Baliarraingo zenbait haur eta guraso Irabi baserrira joan ziren esnea nondik datorren ikusteko, eta honek jarraitzen duen prozesua gertuagotik ezagutzeko asmoz.

Behitik kartoira arteko bide luzea



Haurrak gustura ibili ziren atzo arratsaldean egindako txangoan, behiei eta txekor txikiak begira. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Baliarraingo haurrak, gairontzekoen moduan, esnea ia beti kaxa edo botiletan ikustera ohituta daude. Baina atzo, hau nondik datorren ezagutzeko aukera izan zuten. Horretarako Irabi baserrira joan ziren atzo arratsaldean, 15 haur inguru, gurasoek lagunduta.

Batzuk, errezeloz, zezena topatzeko beldurrez sartu ziren baserrira. Baina txekor txikiak ikustean, segituan ahaztu zitzairen. 200 abelburu inguru daude baserrian, eta hauetako batzuk nola jezten diren erakutsi zuten bertako nagusiak. Hala, esnearen prozesua zein den ikusi ahal izan zuten. Behitik, berriak ezagutzen dituzte botiletaraino.

Prozesua ezagutzeaz gain, Irabi baserriko esnearekin egin daitezkeen produktuak ere dastatu zituzten, iluntzean egin zuten afari-meriendan.

A Agurrak



Urte askoan!

Zorionak Maialen Garciarena (Berastegi). Biharko partez zure 10. urtebetetzean. Etxeko familia.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



hitza

elastikoak salgai
haur, gazte eta helduentzat



Harpidedunentzat
%25
merkeago

Tolosako
HITZAren
bulegoan
eskuragarri.

elastikoarekin
poltsa opari!

